



EUSKADIKO EKONOMIAKO VII. OLIMPIADA

2015ko APIRILaren 17a

AZTERKETARI BURUZKO INFORMAZIOA

- Azterketak bigarren mailako batxilergoko "Ekonomia eta Enpresen Antolaketa"ri dagozkion bost galdera ditu. Hala ere, ikasleak gehenez hauetako bi galdera ordezkatzeko aukera izango du batxilergoko lehen mailako "Ekonomia" irakasgaiko 2 galderagatik
- Galdera bakoitzak 2 puntutako balioa du. Galdekizunaren ulermen gaitasuna eta erantzunetan arrazoiketa baloratuko da bereziki.
- Azterketaren iraupena ordu 2 eta 30 minututakoa da.

EKONOMIA ETA ENPRESEN ANTOLAKETA

1.GALDERA

Feuvert enpresak ibilgailuen salmentan dihardu eta pieza aldagarri eta osagarrien salmentara negozioa zabaltzearen aukeran pentsatzen dago. Horretarako, 500.000 euroko hasierako ordainketa bat aurreikusten du. Inbertsioaren iraupena 4 urtekoa izango da eta ondoko kobrantza eta ordainketa hauek sortuko direla aurreikusten du:

URTEAK	KOBRANTZAK	ORDAINKETAK
1	100.000	50.000
2	200.000	60.000
3	300.000	65.000
4	300.000	65.000

Inbertsio hau egokia den azter ezazu:

- 1) Berreskuratze-denboraren irizpidea edo Pay-backa erabiliz, eskatutako gutxieneko epea 6 urtekoa izanik.
- 2) Balio Eguneratu Garbia (BEG) erabiliz, horretarako deskontu-tasa konstantea eta %7koa izanik.
- 3) Barne-errentagarritasunaren tasa (BET) erabiliz, merkatuko interes-tasa %7koa izanik.

2.GALDERA

Kalkulatu batez besteko aldia finantza heltzerako, eta adierazi lortutako emaitzen esanahia enpresa komertzial batean, baldin eta: azken ekitaldi ekonomikoan enpresak 456.250 €ko lehengaiak erosi bazituen eta horien stock-a biltegian batez beste 20.000 €koa izan bazen; enpresaren salmenta osoak, salmenta prezioan, 568.484 €koak izan baziren; bezeroen saldoa batez beste 51.400 €koa izan bazen eta hornitzaileen saldoa batez beste, 37.500 €koa.

3. GALDERA

TALA Elkarte Anonimoak 2014 urteko ekitaldian balantzea eta galdu irabazien kontua, ondorengoak dira:

2014 - XII - 31 BALANTZEA

AKTIBOA		ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	
AKTIBO EZ -KORRONTEA		ONDARE GARBIA	
Ibilgetu materiala	145.000	Kapital soziala	80.000
		Erreserbak	14.200
AKTIBO KORRONTEA		Ekitaldiaren emaitza	¿?
Lehengaien izakinak	12.000		
Produktu bukatuen izakinak	18.000	PASIBO EZ -KORRONTEA	
Bezeroak	15.000	Epe luzerako maileguak	30.000
Diruzaintza	10.000	PASIBO KORRONTEA	
		Epe laburrerako maileguak	35.000
		Hornitzaileak	30.000
GUZTIA	200.000	GUZTIA	200.000

2014. URTEKO GALDU IRABAZIEN KONTUA

1. NEGOZIO - ZIFRAREN ZENBATEKO GARBIA	
Salmentak	100.000
4. HORNIKUNTZAK	
Erosketak	-40.000
5. USTIAPENEO BESTELAKO SARRERAK	
6. PERTSONAL GASTUAK	-20.000
7. USTIAPENEO BESTELAKO GASTUAK	
Kanpoko zerbitzuak	-4.000
Bestelako tributuak	-6.000
8. IBILGETUAREN AMORTIZAZIOA	
Ibilgetuaren amortizazio zuzkidura	-10.000
A) USTIAPENEO EMAITZA	----
12. SARRERA FINANTZARIOAK	500
13.- GASTU FINANTZARIOAK	-5.500
B) EMAITZA FINANTZARIOA	----
C) ZERGA AURREKO EMAITZA	----
17. Mozkinen gaineko zerga (%28)	----
D) EKITALDIKO EMAITZA	----

OHARRAK:

- Ekitaldiko mozkinaren gaineko zerga-tasa %28koa da.
- Akziodunen Batzar Orokorrean 2014 urteko ekitaldiko emaitza erreserbetara eramatea erabaki da.

ESKATZEN DENA:

- a) TALA Sozietate Anonimoaren Errotazio Funtsa kalkulatu eta enpresaren egoera finantzarioa grafiko batekin adierazi (Aktiboa, Pasiboa eta Errotazio Funtsa).
- b) Enpresa honetan Errotazio Funtsak duen balioaren esanahia azaldu. Enpresaren Ondarearen egoeran arazorik aurkitu baduzu azaldu eta har daiteken soluzio bat aurkeztu.

4. GALDERA

Aurreko galderaren enuntziatuan oinarrituta.

ESKATZEN DENA:

- a) Ondorengo emaitzak kalkulatu: Ustiapeneko emaitza, emaitza finantzarioa, zerga aurreko emaitza eta ekitaldiko emaitza zerga ondoren.
- b) Errentagarritasun ekonomikoa kalkulatu eta honen esanahia azaldu.
- c) Errentagarritasun finantzarioa kalkulatu eta honen esanahia azaldu.

5. GALDERA

Bi lagunek jostailuen salerosketan jarduteko negozio bat sortu nahi dute. Zalantzak dituzte sortu beharreko enpresa motari buruz, baina erantzukizuna mugatu nahi dute, beren ondare pertsonalak arriskuan egon ez daitezen garai txarrak iristean.

Ondoko aukeren artean, zein sozietate mota gomendatuko zenieke? Erantzuna justifikatu ezazu.

- a. Sozietate Kolektiboa
- b. Komanditako Sozietate Hutsa
- c. Sozietate Anonimoa
- d. Kooperatiba- Sozietatea

1. GALDERA

El País egunkariko albistea, 2014/02/1

Deflazioa ate-joka, EBZn

Susperraldia eraikitzen hasi zen Mario Draghi Europako Banku Zentraleko (EBZ) presidentek iragarri zuenean, 2012ko uztailean, beharrezkoa zen guztia egingo zuela euroa salbatzeko. Eta haren oinarriak jarri ziren, Bruselak aurrekontu doikuntzak arindu zituenean. Espainia izan da bi erabaki horietatik onura gehien jaso duen herrialdeetako bat: erabateko austeritatearik gabe eta EBZren babesarekin, merkatuak bankuen berregituratzea edo esportazioen portaera ona hasi ziren baloratzen.

Egoera, ordea, Espainian eta euro-gunean, oso zaila da oraindik, eta ezein finantza gorabeherak, hala nola goraka ari diren zenbait ekonomiaren debaluazioek, kutsatzeko arriskua dute. Europako Batzordea, hauteskunde prozesua dela eta, geldirik dagoenez, EBZ dugu berriro susperraldiaren zaindaria. Eta haren kezka nagusia da, behingoagatik, inflazioa oso txikia dela.

Prezioak hain gutxi igotzea (Espainian, % 0,2 azken urtean) ona da, soldaten izozteak erosteko ahalmena kaltetu ez dezan. Asko zailtzen du, ordea, zorren ordainketa. Eta euro-gunea deflazioan sartzeko arriskua areagotzen du; hots, prezioen beherakada orokor eta iraunkor bat, kontsumorako pizgarria kentzen duena. EBZk arrisku hori ukatu badu ere, azken egunetan horrelakorik gerta daitekeela dioten finantza erakundeetako ikerketa zerbitzuen txostenak pilatu dira. Eta aurreratu dute banku zentralak berriro jardun beharko duela, beste erremediorik ez dagoelako.

Artikuluak irakurri ondoren, ondoko galdera hauek erantzun itzazu:

- a) Zein dira BPGaren deflatorea eta Kontsumo-prezioen Indizea (KPI)? Zertan ezberdintzen dira bi prezioen indize hauek?
- b) Nola kalkulatu da inflazio-tasa? Zein da inflazio-tasa BPGaren deflatorearekin edo KPIrekin kalkulatzeko dagoen ezberdintasuna?
- c) Noiz esango litzateke deflazioa dagoela?
- d) Albistea kontuan hartuta, deflazioaren eragin negatiboak komentatu itzazu, erantzuna arrazoiatuz.

2. GALDERA

El País egunkariko albistea, 2015eko otsailaren 22a

Errealitate berri bat, non inbertitzaileek dirua uzteagatik ordaintzen duten

Europar zorra jaulkipenen % 25 negatiboan daude dagoeneko.

“Garai batean, herri usteak zioen interes tasak ezin zirela negatiboak izan. Azken finean, nor egon daiteke prest beste pertsona bati uzteko eta, gainera, mesede hori egiteagatik ordaintzeko? Bada, hori da, hain zuzen ere, gertatzen ari dena”. Morgan Stanleyeko ekonomiako burua Joachim Fels errealitate berria azaltzen saiatu zen, bezeroei bidalitako ohar batean. Errealitate horren baitan, banku zentralak orain arte ezagutu gabeko eremuetan ari dira sartzen, % Otik gertu edo horren azpitik dauden interes tasekin, eta horren eraginez inbertitzaileen portaera aldatzen ari da.

Orain dela gutxi ezinezkoak zirudiena gero eta arruntagoa da gaur egun. Zor jaulkipenen % 25 baino gehiago negatiboan ari da kotizatzen Europan, eta azken asteetan Nestlék jaulkipen bat egin du, tasa negatiboetan, eta Shellen zorra ere eremu horretan sartu zen, aldi batez. “EBZko zorra erosteko programa zor publikora mugatzen da, baina erosketa hain da masiboa, non korporazioen sektorea ere hartzen duen, kotizazioaren zati batek arrisku subiranoa hartzen duelako” azaldu du Marian Fernándezek, Andbankeko analistak. Suediako Bankuak bankuei ordaintzen die dirua uzteagatik, eta Suitzak eta Danimarkak % 0,75 kobratzen dute, beren finantza sistemetan gordailuak edukitzeagatik. Zorraren tasa negatiboak 6 urteko bonuetara iritsi dira Alemanian eta Danimarkan, eta 13 urteko bonuetara, Suitzan.

Herri ustearen arabera, pentsatzen genuen, halaber, muga bat zegoela interes tasetarako, tasak % Ora iristean aurreztaileek dirua bankuetatik aterako zutela eta koltxoi azpian gordeko zutela uste osoan oinarrituta. Urteetan, ekonomialariek defendatu dute muga erreala maila horren azpitik zegoela, eskudiruko kopuru handiak biltzeko kostua dela eta. Inflazioa eremu negatiboan sartu den honetan, ordea, egoerak okerrera egin du, horrek interes tasa errealak igotzen baititu. “Eta ebidentziarik ez dago oraindik, tasa negatiboek gordailuak masiboki kentzeko joera eragin dutenik frogatzeko, interes tasa negatiboak aplikatzen ari diren banku zentraletako finantza sistemetan” ziurtatu dute Goldman Sachseko analistek.

Hedapen kuantitatiboko planek distortsio izugarria eragin dute zorraren merkatuan; hainbestekoa izan da, non “dagoeneko errenta finkoko merkatuetan burbuila bat hasi garen ikusten” ziurtatu du José Ramón Iturriagak, Abante Asesoreseko bazkideak. Hain zuzen, krisia hasi zenetik, munduko zorrak % 42ko hazkundera izan du, 142tik 199 bilioi dolarretara igo baita; munduko BPGren % 286, McKinsey-k egindako txosten baten arabera. “Hedapen kuantitatiboko neurriak eta zero tasak oso arriskutsuak dira finantzen egonkortasunerako, merkatuak gehiegi puzten direlako eta eztanda egiten dutelako soilik banku zentraletako politikan fedea galtzen dutenean” ohartarazi du Gonzalo Recartek, Espainiako Saxo Bankeko zorroen kudeatzaileak.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Joachim Felsek bi arrazoi ikusten ditu inbertitzaile batek errentagarritasun negatiboko bonuak eros ditzan. “Aseguru moduko bat izan daiteke, finantza krisiei eta zorraren arrisku aktiboiei edo enplegu aukerei eragin diezaiekeen beste zorigaitz batzuei aurre egiteko” esan du. “Eta gerta daiteke inbertitzaileek aurrezkia balioestea, erretiroari begira, gaur egungo kontsumoa lehenetsi beharrean” esan du, bukatzeko.

Kontua da errentagarritasun negatiboko zorrean inbertitzen duten gehienak inbertitzaile instituzionalak direla, eta horiei konpentsatzen die Nestléri dirua uztea tasa negatiboetan, baldin eta dirua banku zentratean edukitzeak kostu handiagoa badu enpresarentzat. Europako Banku Zentralak (EBZ) % 0,20 kobratzen du eragiketa horrengatik, esate baterako.

Artikulua irakurri ondoren, ondoko galdera hauek erantzun itzazu:

- a) Ondorengo kontzeptuak defini itzazu: bonua, errenta finkoko titulua, interes-tasa
- b) Nor dauka bonuak jaulkitzeko eskumena? Zertarako jaulkitzen dira? Zein da zor publikoarekin izandako erlazioa?
- c) Zer adierazten du interes-tasa nominala negatiboa izateak?
- d) Nola azalduko zenuke interes-tasa nominal negatiboen existentzia?